



2007-03-24

2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

BIZKAIERA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa honeek egiteko **ordubete eta 40 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakotxaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



1. IRAKURMENA

Ariketa-motea: CLOZE-TESTA

Zelan egin:

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakotxak berba bat kendu dala adierazoten dau.
 - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markau **erantzun-orrian**.
 - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deusugu.
- Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dozuz ondo.

HERIOTZA DUINAREN ALDEKO EKINTZEA

Duintasunez hilteko eskubidea kontu ___1___ da. Bere barruan gai bat baino gehiago batzen ditu: eutanasia, ___2___ bere burua hilteko eskubidea, beste bati ondo hiltzen laguntzea... Lege aldetik, barriz, estatu bakotxak bere modura ___3___ ditu ahalegin horreek.

Asko berba egin izan da horrezaz *Mar adentro* filmak lortutako ___4___ ostean; baina, halanda be, suizidioak tabua izaten jarraitzen dau gure ___5___. Eleiza katolikoak zerikusirik eukiko dau horretan, mende luzez ___6___ bildurgarriak ipini izan deusazalako bere burua akabetan eban kristinauari. Dana dala, gizakiok nozonoz gugan edo gure inguruan aurkitzen dogun gai nagusi hori —bizia eteteko unea heldu dala erabagiteko eskubidea— Paleolitikoan ___7___ bizirik dago gaur.

Australiako adineko lagun batzuk be, ___8___ lez, tabu, lege-arazo eta eskubideen arteko ___9___ harrapauta dagoz. Baina eztabaida publikoetan luzatu eta galdu ___10___, zuzeneko ekintzara jo dabe.

Death's cocktail (*Koktel hilgarria* esan ___11___ euskeraz) ipini dau bere erreportajearen izenburuan Dave Hancock kazetariak, Australiako *The Bulletin* astekarian. ___12___ kontau dau hogei herritarrek —adinekoak gehienak, eta batzuk gaixotasun larrietan ___13___ terminaletara hurreratzen dabilzanak— ___14___ berezia egin dabela, droga hilgarri bat ___15___ ikasteko. Joan dan urrian ___16___ ziran, eta bertan ikasi eben pentobarbital ___17___ antzeko botika bat lortzen. Pentobarbitala Suitza, Belgika eta Herbehereetako legezko



eutanasetan erabilten da, eta Estatu Batuetako Oregoneko estadiak legeztatuta dauka medikuek __18__ ahal izatea, gaixo batek __19__ aurrean halan eskatu ezker. Pentobarbitala behar adinako dosian hartu dauana __20__ egiten ei da atoan, eta hogei minutuan hil, ezelako __21__ barik.

Hogei lagun horreetan gazteenak 55 urte daukaz eta zaharrenak 94. Danak be Exit International erakundeko __22__ dira. Kazetariak argitu __23__, hogei persona horreetatik bik laster erabiliko dabela autortu deutesie, euren __24__ degeneratibo larriak oso __25__ daukiezalako. Gainerakoek aseguru __26__ euki gura dabe botika hori, ez dabelako euren bizimoduaren __27__ ikusi gura edo asistentziako etxe baten amaitu gura, euren buruaren jaube ez __28__.

Botika hori prestetan hamar hilabetez ibili dira. Euren __29__ 25.000 euro ipini ditue, autoa, laborategi txukun baterako tresnak eta beharrezko __30__ erosteko. Horreek guztiak __31__, lurjaube handi batek abandonauta daukan etxalde batera joan dira, hegaztien bizimodua ezagutzen __32__ zahar-koadrila baten itxurak eginaz.

Han alkartu, eta laborategiko beharrari __33__ deutesie. Tresna batzuk nahiko sofistifikauak dira; beste asko, __34__, edozein sukaldetan aurkitzen diran __35__, eta abarrak dira. Kazetariari Elaine izeneko batek autortu deutesiez, "produktua __36__ behar genduan informazino __37__ liburutegi publikoetan eta unibersidadean aurkitu dogu. Guztiok hartu dogu parte operazinoan. __38__, danok ikasi dogu gauzak zelan egiten __39__. Eta epaileren batek persegiduko __40__, alkarri lagundu ahal izango __41__".

Egun biko beharraren eta hainbat erreazino __42__ ostean lortutako produktua hozkailuan sartu, eta __43__ jai txiki bat egin dabe paraje hatara batutako hogei lagunek. __44__, kristaltxo hilgarriak lehortu, eta etxera eroateko __45__ eukiezan.

Urriko ekintza berezi hori izan da, __46__, zemendiaren 5ean eta 6an Sidney urian Exit Internationalek egin dauan nazinoarteko batzarraren __47__ nagusietako bat. Gero, manifestazino nasaia egin dabe kaleetan __48__, eta polizia-etxe baten aurrean amaitu dabe; han Exit Internationaleko __49__ batzuek arma eukiteko baimena eskatu deutesie poliziarri. Gero kanpoan hau adierazo dabe: "Zergaitik daukagu eskubidea geure burua bakardadean eta era __50__ tiroz akabetako, eta ez, droga egokia hartuta, gure familiartekoen ondoan bakean hiltzeko?".

Pello Zubiria
Argia, 2005-12-11
Egokitua



1.1. AUKEREN ORRIA

- | | | | |
|---|---|--|---|
| 1. a) txirristabidea
b) txirristadurea
c) txirristakorra
d) txirristalaria | 2. a) nor
b) nork
c) nori
d) nogaz | 3. a) arautzen
b) arintzen
c) murrizten
d) antolatzen | 4. a) ondoezaren
b) gorakoaren
c) arrakastearen
d) etsipenaren |
| 5. a) alde
b) mailan
c) parean
d) artean | 6. a) zigor
b) suntsipen
c) eraso
d) sari | 7. a) hainbeste
b) baizen
c) moduko
d) hain | 8. a) guri
b) gure
c) guk
d) gu |
| 9. a) eremuak
b) nekeak
c) katramilak
d) beherakoak | 10. a) beharrear
b) ostera
c) ezean
d) ahala | 11. a) geinke
b) gaitkez
c) geintkez
d) genduke | 12. a) Beragan
b) Bada
c) Halanda ze
d) Bertan |
| 13. a) abiada
b) egoera
c) emaitza
d) laguntza | 14. a) egonaldi
b) egoitza
c) eskualde
d) zainketa | 15. a) egiteko
b) eginaz
c) egiten
d) egitea | 16. a) erbesteratu
b) bihurtu
c) babestu
d) batu |
| 17. a) famauro
b) famauan
c) famauari
d) famauaren | 18. a) bialdu
b) agindu
c) ahoratu
d) trukau | 19. a) gizakien
b) lekukoen
c) bertakoen
d) helduen | 20. a) lokartu
b) sendotu
c) leundu
d) sustatu |
| 21. a) bildur
b) ondorio
c) oinaze
d) bihotzerre | 22. a) ahaide
b) etsai
c) kide
d) atal | 23. a) daualako
b) dauala
c) dauanez
d) dauanean | 24. a) izaera
b) asmo
c) aurrerapen
d) gatx |



25. a) arinduta
b) aurreratuta
c) osatuta
d) makalduta
26. a) begira
b) faltan
c) truke
d) moduan
27. a) gainbehera
b) deserosotasuna
c) eginbeharra
d) aurrerapena
28. a) dirala
b) diranik
c) diran
d) diran arren
29. a) eretxiz
b) esku
c) kontuz
d) sakeletatik
30. a) eginkizunak
b) oinarriak
c) hestebeteak
d) lehengaiak
31. a) hartzeko
b) hartuta
c) hartzen
d) hartu
32. a) doanak
b) doan arren
c) doan
d) doala
33. a) ekin
b) hasi
c) deitu
d) askatu
34. a) bitartean
b) beraz
c) ostera
d) be
35. a) tanborra
b) makulua
c) zartagina
d) pozoia
36. a) igarteko
b) ekoizteko
c) ahoratzeko
d) ugaritzeko
37. a) gehiegi
b) gehiago
c) gehiengoa
d) gehiena
38. a) Dana dala
b) Holan
c) Era berean
d) Izan be
39. a) dirala
b) diran
c) dira
d) diranez
40. a) baeuskun
b) balitxaku
c) baleusku
d) baginduz
41. a) geunskio
b) geunke
c) gintzatekez
d) geunkez
42. a) kimikoaren
b) kimikoren
c) kimikoen
d) kimikoz
43. a) hango
b) zelako
c) halango
d) harako
44. a) Zorionez
b) Beharbada
c) Harritzekoa
d) Biharamonerako
45. a) prest
b) asmoz
c) gogoa
d) zain
46. a) hain zuzen be
b) ostera
c) beharbada
d) halanda be
47. a) baliabide
b) berbagai
c) oroigarri
d) txinparta
48. a) inguruan
b) bitartez
c) zehar
d) kanpora
49. a) ordezeko
b) ordeztu
c) ordezkari
d) ordezpen
50. a) odolerioan
b) odolkian
c) odolgiroan
d) odoltsuan



2. IDAZMENA

Egitekoa: ERREKLAMAZINO-ESKUTITZA

Oharrak:

- Gitxienez 35 lerro idatzi behar dozuz.
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

GAIA: Herriko futbol-taldea orain be zorretan dago eta Udalak diru dezente emoteko asmoa dauka. Horren kontra zagoze bertako hainbat alkarte. Pentsetan dozue herrian badagozala beste premina batzuk eta badagoala non eta zertan gastau dirua.

Idatzi eiozu gutun bat alkateari, alkarte guztien izenean, eta zuen eretxia eta zuen proposamenak adierazo.

Oharra: Orrialde hau eta honen atzeko aldea zirriborroa egiteko erabili zeinkez. Zirriborroan dagoana ez da kontuan hartuko.

ZIRRIBORROA



Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60



Osakidetza
Servicio vasco de salud

2HE-IRAKURMEN-PROBA

ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgai: "HERIOTZA DUINAREN ALDEKO EKINTZA"

A eredia

ERANTZUN ZUZENAK

1.	C	2.	B	3.	A	4.	C
5.	D	6.	A	7.	B	8.	D
9.	C	10.	A	11.	A	12.	D

13.	B	14.	A	15.	C	16.	D
17.	D	18.	B	19.	B	20.	A
21.	C	22.	C	23.	C	24.	D

25.	B	26.	D	27.	A	28.	A
29.	D	30.	D	31.	B	32.	C
33.	A	34.	C	35.	C	36.	B

37.	D	38.	B	39.	B	40.	D
41.	A	42.	B	43.	C	44.	D
45.	A	46.	A	47.	B	48.	C
49.	C	50.	D				

2HE-IRAKURMEN-PROBA

ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgai: "HERIOTZA DUINAREN ALDEKO EKINTZA"

B eredia

ERANTZUN ZUZENAK

1.	D	2.	C	3.	B	4.	B
5.	A	6.	D	7.	C	8.	B
9.	B	10.	A	11.	A	12.	C

13.	D	14.	C	15.	C	16.	D
17.	A	18.	C	19.	C	20.	B
21.	B	22.	B	23.	A	24.	D

25.	D	26.	D	27.	A	28.	C
29.	D	30.	C	31.	A	32.	A
33.	B	34.	D	35.	A	36.	B

37.	B	38.	A	39.	D	40.	C
41.	A	42.	C	43.	B	44.	B
45.	D	46.	D	47.	A	48.	C
49.	A	50.	C				